

ULERMENA: LANDAREAK

Irakurri testua eta egin ariketak.

IZAKI BIZIDUNAK: LANDAREAK

Landareak izaki bizidunak dira, hortaz, jaio, hazi, ugaltu eta hil egiten dira. Animaliak ez bezala, landareek haien elikagai propioak sortzen dituzte.

Landare baten atalak



Landare batek 3 atal nagusi izan ditzake: **sustraiak**, **zurtoina** eta **hostoak**. Sustraiak lur azpian daude eta landarea lurrian mantentzen dute. Ura eta nutrienteak hartzen dituzte ere bai. Zurtoina lurrian gainetik hazten da eta nutrienteak landarean zehar zabaltzen ditu. Hostoek landarearentzako elikagaiak sortzen dituzte.

Gainera, landare batzuk **loreak** eta **fruituak** dituzte ere bai.

Landareak mota hauekoak izan daitezke:

ZUHAIZKA: Zurtoin nagusia ez duen zurezko landare bizikorra.

ZUHAITZA: Zurtoin nagusia duen zurezko landare bizikorra.

BELARRAK: Zurtoin bigun eta ez-zurezkoak dituen landare berdea.



ZUHAIZKA




ZUHAITZA



BELARRAK

1. Eraman landarearen atala dagokion lekura.




- fruitua
- sustraiak
- lorea
- hostoa
- zurtoina



2. Erlazionatu atal bakoitza bere funtzioarekin.

- | | |
|-----------|---------------------------------------|
| sustraiak | Nutrientek landaretik zabaltzen ditu. |
| zurtoina | Elikagaiak sortzen dituzte. |
| hostoak | Landarea lurrean mantentzen dute. |

3. Lotu landare mota bakoitza dagokion irudiarekin.




- | | | |
|----------|----------|---------|
| zuhaitza | zuhaixka | belarra |
|----------|----------|---------|

4. Irakurri testua eta ordenatu irudiak.

KALABAZA

Lehenengo, kalabaza hazi bat ereiten dut. Gero, landare bat hazi egiten da. Ondoren, kalabaza txiki bat osatzen da. Azkenik, kalabaza handitzean hartu egiten dut.

1	2	3	4
---	---	---	---



5. Ikusi bideo hauek. Bigarren bideoko esperimentua egitera animatzen zara?